

ARROLTZEAK

- MAÑAÑA:** (*bere zare eta saskien artetik oihuka*): Arroltzeak fresko-freskoak! Zatozte hunat, jaun-andereak! Huna arroltze finak! Arroltze pare gabeak.
- JAUN BAT:** (*hurbiltzen da.*) Oilo-arroltzeak dituzu aments!
- MAÑAÑA:** Preseski, gizon maitea! Oilar arroltze guziak atzo salduak ditut (*irri egiten du*)
- JAUNA:** Plazer dut, hain alegera baitzira.
- MAÑAÑA:** Bai eta nik ere, jauna; arrailleria hain ontsa hartzen duzulakotz. Horiek hola, zonbat arroltze behar ditutzu?
- JAUNA:** Bi dotzena, ez badira segurik sobera kario!
- MAÑAÑA:** Frango merke dira... Peyrehoradeko merkaturik ari gira gu hemen: dotzena ehun eta hirur hogoi liberetan omen zen Peyrehoradeko joan den merkatuan.
- JAUNA:** Bai, han *omen* eta hemen *segur*... Ez dautzut hoinbertze emanen, debrua ez baduzu!
- MAÑAÑA:** Zer zinituzke, ala kitorik nahi?
- JAUNA:** Gogotik, emaiten bazinauzkit!
- MAÑAÑA:** Behazozu horren kopetari!
- JAUNA:** Joko parte, ehun eta hirur hogoi libera, handixko zait... Ez dut gero loterian moltserik gizendu nik, prezio hoi onhartzako...
- MAÑAÑA:** Nik ere ez, urrurik arttzeko... (*gizonak urruntzerat egiten dueneko*) Halere iduri baituzu gizon serio behar bezalakoa norbait, alo... dotzena utziko dautzut ehun eta berrogoietan...
- JAUNA:** Hau emazteki judua!
- MAÑAÑA:** Zer! hogoi libera kentzen dauzkitzut eta oraino zureak handiago?
- JAUNA:** Aise ttipituko ditutzu prezioak, behin aski emendatuz geroz!
- MAÑAÑA:** Zeruko Ama ona! Zer behar dugun aditu, gure borontate onaren sari. Ez zinituzke araz arroltze eder hauk ehun eta hogoi liberetan nahi?
- JAUNA:** Ja!ja!... Hazparneko merkatuan ez dute arroltzek hoinbertze Egin, hurbiltzekorik ere...
- MAÑAÑA:** Bego Hazparne den tokian... Hemen Baionan gira... Ehun eta hogoi libera erran dut: ez dut sos bat barkatuko!
- JAUNA:** Ez eta Jainko maiteak ere zuri, jujatuko zaituenean...
- MAÑAÑA:** Ontsak dakizu, zuk, Jainkoaren jujamenduen berri!! Ez duzu aditu treina sariak nola goititu dituzten; ez aditu, nolako zergak eta tatsak ezarri dauzkuten?... Arroltzeak kario zaizkitzula! Gaineratikoak hain merke othe dira?... Othoi ez eni erran zozokeriarik... Ehun eta hogoi libera erran dut: ez dautzut sos bat atherako...
- JAUNA:** Ez eta nik ere arroltze bat... Berriz aldi bat arte.. Egizu merkatu, Mañaña! (*urruntzerat doa...*)
- MAÑAÑA:** Hep! Jauna! Norat zoazkit hola?
- JAUNA:** Bertze nunbait ba ahal da prezio hoberik!
- MAÑAÑA:** Hau gizon sentikorra! Zaude ba ittant bat... Ori, ez baitut egun oraino deus era saldu, estrena-sari, ehun eta hamarretan uzten dautzut dotzena... Bazaitzu?
- JAUNA:** Oraiko huntan kanore zerbait badu zure prezioak!
- MAÑAÑA:** (*erhia ezpainetan*) Jainkoaz, othoi, ez nehoi erran eros-prezioan saldu dautzuztala!
- JAUNA:** Zaude deskantsu, ez dut gezur erraiteko usaiarik!
- MAÑAÑA:** He?
- JAUNA:** Zer nahi den, ehun eta hamar liberetan hartuko dauzkitzut bai zombait arroltze!
- MAÑAÑA:** Preseski, fresko freskoak ditut oixtian errunak...
- JAUNA:** Oixtian errunak?
- MAÑAÑA:** Ba, eta beharri fina bazinu, segur niz oraino adi zinitzazkela, arroltze hoik errun dituzten oiloen kantuak!
- JAUNA:** Hainbat gaixto!

MAÑAÑA: Zertako "hanbat gaixto"?

JAUNA: Hain xuxen, ez bainuen arroltze freskorik nahi!

MAÑAÑA: Freskorik ez nahi?

JAUNA: Ez!

MAÑAÑA: Zer nahi zinuen bada?

JAUNA: Arroltze ustelak.

MAÑAÑA: Ustelak?

JAUNA: Bai, ustelak! Aditzea baduzu baditugula Baionan ur-gesal mainuak?

MAÑAÑA: Ba izigarri usain tzarreko mainu batzu...

JAUNA: Justu! Pentsu duzun bezala, ur hoi en ontzeko sufrea biziki kario da eta mainu hoi en jabea eta buruzagia bainiz ni, sufre horren orde, arroltze ustelak botatzen ditut urean: usain ber-bera emaiten diote urari.

MAÑAÑA: Eta erieri on bera egiten?

JAUNA: Zer ba! (*ahapeka bezala*) Ez diotegu, gero, erieri salatzen, zerk usaintzen duen heien mainua... Balakite, xahu gintazke!

MAÑAÑA: Gure aita zenak erraiten zuena: Ez da nehun gerthatzen, mundu huntan bezanbat ixtorio!

JAUNA: Zuk errazu!... (*erdi-ahapeka*) Ez zinituzke fortunaz zonanbait arroltze pasatu?...

MAÑAÑA: Egia erraiteko, Jaun buruzagia... Bakhar zonanbait atxemanen ditugu beharbada, ontsa beharrez! Hoinbertzeren artean, mirakulu litake ez aurkitzea zuk nahi bezalako hetarik! Zonbat behar zinuzke?

JAUNA: Oixtion errana: bi dotzena!

MAÑAÑA: Ba, kausi errexak dira! marka ttipi bat egin diotet usteleri. Ala bainan ez ditzazket denak erosle berari eman... Hamabietarik bi ustel bakharrik, alegia deus ez! Hiru zonanbait aldiz, bereziki gizonak heldu zaizkitalarik erosterat ezen, merkatu egiteko, frango tontoak zirezte bana bertze gizon hoik; ez dut, gero, zuretzat erraiten!

JAUNA: Beharrik!

MAÑAÑA: (*belhauniko bilhatzen ditu*) Bat, biga, hiru... hemezortzi! (*miatzen du aintzina*) Ez dut uste baden bertzerik. To... hemeretzi! Ez da probetxurik: hau azkena dut, maluruski!

JAUNA: Bo!!! Gehixago beharko nituen ba!

MAÑAÑA: Ez zira satifa-errexak! Ukhan banitu, gogotik saldako nauzkitzun: ez ahal duzu dudarik? Sinesten ahal nuzu: ez niz, gero, ni dena elhe zuri eta zimarku diren emazteki hetarik...

JAUNA: Sinesten zaitut segurki, Mañaña... Bainan orai, erranak erran; bi dotzena hartzen dauzkitzut, hasteko, ustelik ez den zare huntarik. Bat... biga... hamabi... Bat... biga... hiru... hamabi... (*bere zarean emaiten ditu...*) Ene kondua badut...

MAÑAÑA: Eta ustelak?

JAUNA: Ah! ustelak? Begira zkitzu gizon tonto hoientzat, edo bertzenaz igor mainuetarat...

MAÑAÑA: Ez zira ba, zu, mainuen nausia?

JAUNA: Ni? Ez nahi ere... Nik arroltze freskoak nahi ditut, eta dotzena bakotxean ez baitzait laket bizpahiru ustelen kausitzea, kasu poxi bat egiten dut erostean... Horra... (*diru emaiten du eta badoa huxtu eginez*)

MAÑAÑA: Bainan, gizona, nun duzu konzientzia? Zer uste duzu? Hala utziko zaitudala?

JAUNA: (*urrundik*) Jujetarat jaukitzen ahalko nuzu, nahi duzunean: zure zebitzuko izanen naiz! (*itzaltzen da*)

MAÑAÑA: Faltsua ez bertzea! Ez da gehiago ohointzarik eta gezurrik baizik mundu trixte huntan!